

1

GIPUZKOAKO LURRALDE HISTORIKOKO XEDAPEN OROKORRAK

GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA

OGASUN ETA FINANTZA DEPARTAMENTUA

65/2023 Foru Agindua, otsailaren 8koa, Mugaldeko Langileen Erregistroan alta, aldaketa eta baja eskatzeko 002 ereduaren onetsi eta hura aurkezteko lekua eta epea ezartzen dituenak.

Espainiako Erresumak eta Frantziako Errepublikak 1995eko urriaren 10ean Madrilén izenpetu zuten hitzarmenak, zeinaren helburua baita errenta eta ondare zergetan zergapetze bikoitza saihestu eta diru ihesa eta iruzur fiskala prebenitzea, 15. artikuluan xedatzen duenez, aipatutako hitzarmenaren 16., 18., 19. eta 20. artikuluetan xedatutakoari kalterik egin gabe, Estatu kontratatzaile bateko egoiliar batek lortzen dituen lantzeriak, soldadak eta antzeko ordainsariak Estatu horretan baino ezin dira zergapetu, enplegua beste Estatu kontratatzailean egiten denean izan ezik. Enplegua azken estatu horretan egiten bada, kontzeptu horrengatik jasotzen diren ordainsariak beste estatu horretan zergapetu daitezke.

Dena den, Estatu kontratatzaile bateko egoiliar batek beste Estatu kontratatzailean egindako enpleguagatik lortzen dituen ordainsariak lehenengo Estatuan bakarrik zergapetu daitezke, baldintza hauek betetzen badira:

- a) Ordainsariak jasotzen dituenak guztira ez ematea, beste Estatuan, ehun eta laurogeita hiru egun baino gehiago, aldi batean edo gehiagotan, hamabi hilabete jarraituko edozein epealditan,
- b) Ordainsariak beste Estatuan egoiliar ez den enplegatzaile batek edo haren izenean ordaintzea, eta.
- c) Ordainsariak enplegatzaileak beste Estatuan duen establezimendu iraunkor edo oinarri finko baten bidez ez ordaintzea.

Bestalde, Hitzarmen horrekin batera sinatu zen Protokoloak honako hau dio 12. xedapenean:

«15. artikuluko 1. eta 2. apartatuak xedatutakoa gorabehera, estatu kontratatzaileen artean xedapen berriak adosten ez diren bitartean, indarrean jarraituko du 1973ko ekainaren 27an Espainiak eta Frantziak errenta eta ondare zergetan zergapetze bikoitza saihesteko izenpetu zuten Hitzarmenaren 4. apartatuak. Haren testuak honako hau dio zehazki:

«4. Mugaldeko langileek Estatu kontratatzaileen arteko akordio partikularren bidez sortutako muga agiriarekin justifikatzen badute mugaldeko langile direla, bakar-bakarrik egoiliar diren Estatu

kontratatzailean ikusiko dituzte zergapetuak kontzeptu horregatik jasotzen dituzten lansariak, soldatak eta antzeko ordainsariak.»

Estatu kontratatzaileetako agintari eskudunek erabakiko dute, beharrezkoa denean, nola aplikatuko diren aurreko xedapenak, eta bereziki adostuko dute, beharrezkoa izanez gero, zein frogagiri erabiliko den mugako gutun gisa, xedapen hauetan jasotako helburuetarako.»

Aurrekoa aintzat hartuta, Gipuzkoako Lurralde Historikoaren esparruan abenduaren 10eko 90/1996 Foru Dekretua onartu zen, Ogasun eta Finantza Departamentuan Mugaldeko Langileen Erregistroa sortzen duena, langile horiek mugaldeko langile direla frogatzea ahalbidetzeko.

Foru dekretu horren 3. artikuluan xedatutakoa betez, abenduaren 23ko 1403/2003 Foru Agindua onartu zen, Mugaldeko Langileen Erregistroan alta, aldaketa eta baja eskatzeko 002 eredia onartu eta hura aurkezteko lekua eta epea ezartzen dituen.

Igarotako denborak, batetik, eta administrazio publikoen aurrean izapideak egiteko bitarteko elektronikoak ezarri izanak, bestetik, beharrezko egiten dute eredu hori eguneratzea eta bide elektronikoan aurkezteko era gehitzea.

Horrenbestez, hau

XEDATZEN DUT

1. artikulua. 002 eredia onestea.

Onetsita geratzen da abenduaren 10eko 90/1996 Foru Dekretuaren bidez sortutako Mugaldeko Langileen Erregistroan alta, aldaketa eta baja eskatzeko erabiliko den 002 eredia, foru agindu honetan eranskin gisa jasotzen dena.

2. artikulua. Mugaldeko Langileen Erregistroan inskribatzera behartutako pertsonak.

1. Mugaldeko Langileen Erregistroan inskribatu beharko dira mugaldeko langile izateko baldintza erabakigarriak betetzen dituzten pertsona fisikoak, baldin eta izaera hori Ogasun eta Finantza Departamentuaren aurrean baliarazi nahi badute 1995eko urriaren 10ean Espainiako Erresumak eta Frantziako Errepublikak errenta eta ondare zergetan zergapetze bikoitza saihestu eta diru ihesa eta iruzur fiskala prebenitzeko Madrilén izenpetu zuten Hitzarmenaren protokoloko 12. xedapenean ezarritakoa aplikatzeko.

2. Ondorio horietarako, mugaldeko langile izango dira lehen aipatutako abenduaren 10eko 90/1996 Foru Dekretuaren 2. artikuluko 2. apartatuan aurreikusitako baldintzak betetzen dituztenak.

3. artikulua. 002 eredia aurkezteko moduak.

1. Modu hauek erabili daitezke 002 eredia aurkezteko:

a) Bitarteko elektronikoak. Aurkezteko modu honetara behartuta egongo dira ekainaren 28ko 320/2017 Foru Aginduaren 1. artikuluko 1. apartatuan aipatzen diren zergapekoak (320/2017 Foru Agindua, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Zergen Foru Administrazioarekiko harremanetan bitarteko elektronikoak erabiltzeko obligazioa arautzen duena).

Eredua internet bidez bidaliko da, «Zergabidea» plataforma erabiliz, ekainaren 28ko 320/2017 Foru Agindua, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Zergen Foru Administrazioarekiko harremanetan bitarteko elektronikoak erabiltzeko obligazioa arautzen duenak, ezarritakoaren arabera. Plataforma horrek aurkeztu beharreko aitortzen zirriborroak prestatu eta gordetzea ere ahalbidetuko du.

b) Paperezko euskarria, foru agindu honetan eranskin gisa jasota dagoen diseinuaren arabera.

Interesdunek bi modutan eskuratu ahal izango dute paperezko euskarria: eredua PDF formatuan inprimatuz Gipuzkoako Foru Aldundiaren egoitza elektronikotik (<https://egoitza.gipuzkoa.eus>) eta Ogasun eta Finantza Departamentuaren webgune ofizialetik (<https://www.gipuzkoa.eus/ogasuna>), edo, bestela, zuzenean «Zergabidea» plataformatik inprimatuz, betiere behin eredua bete eta gero.

2. Zerga arloko tramite jakin batzuk bide elektronikoz egiteko obligaziorik ez duten zergapekoek –ekainaren 28ko 320/2017 Foru Aginduaren 1. artikuluan ezarritako obligazioa–, aitorpena internet bidez aurkeztea aukeratzen badute, foru agindu horretan xedatutakoari jarraituz frogatu ahal izango dute beren identitatea.

3. Paperezko euskarria erabiliz gero, 002 eredua Gipuzkoako Foru Aldundiko Ogasun eta Finantza Departamentuko herritarren arretarako bulegoetan aurkeztu beharko da.

4. 002 ereduarekin batera dagokion dokumentazioa aurkeztu beharko da, Ogasun eta Finantza Departamentuan Mugaldeko Langileen Erregistroa sortzen duen abenduaren 10eko 90/1996 Foru Dekretuaren 3. artikuluko 1. apartatuan xedatutakoaren arabera.

4. artikulua. 002 eredua aurkezteko epeak.

002 eredua epe hauetan aurkeztu behar da:

1. Alta eskaera edozein unetan aurkeztu ahal izango da.

2. Aldaketak egiteko eskaera hilabeteko epean aurkeztu beharko da, alta emateko edo berritzeko eskaeretan adierazitako ohiko bizilekuak edo besteren konturako lanaren prestazio lekuak aldaketaren bat duten egunetik aurrera.

3. Mugaldeko langile izateko baldintzak jada ez betetzeagatik egin behar den baja eskaera hilabeteko epean aurkeztu beharko da, baldintza horiek bete gabe geratzen diren egunetik aurrera.

4. Borondatezko baja eskaera edozein unetan aurkeztu ahal izango da.

Xedapen indargabetzailea.

Foru agindu hau indarrean jartzen denetik aurrera, indarrrik gabe geratzen dira foru agindu honetan aurreikusitakoarekin bat ez datozen maila bereko edo txikiagoko xedapen guztiak, eta, bereziki, abenduaren 23ko 1403/2003 Foru Agindua, Mugaldeko Langileen Erregistroan alta, aldaketa eta baja eskatzeko 002 eredua onetsi eta hura aurkezteko lekua eta epea ezartzen dituenak.

Azken xedapena.

Foru agindu hau Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu eta biharamunean jarriko da indarrean.

Donostia, 2023ko otsailaren 8a.—Ogasun eta Finantza Departamentuko foru diputatua. (940)

ERANSKINA



